

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENDAPENA

- **ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**

KODEA: UI18_07

- **IRAUPENA** : 30 h
- **IRAKAS LEKUA** : CIFP USURBIL LHII Etarte bidea 9, 20170 Usurbil, Gipuzkoa
- **HASIERA DATA** : 2018-06-25
- **AMAIERA DATA** : 2018-06-29
- **PLAZA KOPURUA** : GEHIENEZ 15 - GUTXIENEZ 10
- **HIZKUNTZA** : Gaztelania

EGITARAUA

GAITASUNAK

Vetibac Teknologia Campuseko Energia Berriztagarri eta Energia Efizientziako programak aukera eskaintzen du energia iturri garbiei buruzko ikuspegi paregabea eskuratzeko, baita ondorengoei buruz: askotariko banaketa eta biltegitratze teknologiak eta sistema efizienteen bidez atzemandako energia kudeaketa. Programa bost egunez luzatuko da. Lehenengo egunean landuko dira metodologia berriei lotutako gaiak, kalitate sistemak eta Euskadiko LHn landutako beste alderdi batzuk, horretarako oinarrituz aldi berean Energia Berriztagarri eta Energia Efizientziari lotutako tailer klaseetan.

Hurrengo egunetako bakoitzean, energia/efizientzia arlo bana landuko da, eta askotariko helburuen berri emateko alderdiak landu eta aztertuko dira, adibidez, instalazioa eta mantentze lana, baliabideen kudeaketa, edota praktika didaktikoen adibideak.

EDUKIAK

- Eguzki Sistema Fotovoltaikoen diseinu, instalazio eta mantentze lanerako printzipioak. Eguzki energiari buruzko oinarrizko teoria, sistema osagaiak, diseinua, instalazioa, martxan jartzea, mantentze lana eta arazoaren konponketa eskala txikiko instalazio fotovoltaiko batean.
 - Eguzki Energia Termikoaren kontzeptu nagusien azterketa. Instalazioen diseinua eta neurria hartzea, muntaketa baldintzen azterketa, zerbitzu abiaraztea eta instalazioen mantentze lana.
 - Haize Energiari buruzko kontzeptu orokorren berrikuspena. Aire-sorgailu motak eta ezaugarriak, mantentze lanerako zereginak eta prebentzioko mantentze lana.
 - Askotariko teknologiak uztartzen dituen galdara gela eredua. Biomasa galdarak. Osagaiak, errekuntza gasak, errendimendua, mantentze lanak.
 - Biomasa galdareari buruzko ikastaro eta jardunaldietarako ekipamendu eramangarria.
 - Energia Berriztagarri eta Energia Efizientziari buruzko ikastaroetarako Internet edukien aplikazioa.
-

METODOLOGIA

1. eguna:

- Harrera.
- Ikastaroaren aurkezpena eta dokumentazioa ematea.
- CIFP Usurbilgo Lanbide Eskola LHII instalazioen bisita
- Euskal Autonomia Erkidegoko LHn lantzen diren arloen aurkezpena.
- LHri Aplikaturako Berrikuntza.
- Etengabeko Hobekuntza.
- Ikaskuntza Metodo eta Prozesuen Ikerketa.
- Ekintzailtza eta Aldaketaren Kudeaketa Arloa.
- LH Eremuko Nazioartekotzea.

2. eguna:

Eguzki Energia Fotovoltaikoa.

3. eguna:

Eguzki Energia Termikoa.

4. eguna:

Haize Energia.

5. eguna:

Galdara gelak eta Biomasa.

EBALUAZIOA

Ikaslea ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Parte hartzaileek orduen % 90 (presentzialak edo/eta ez-presentzialak) bete behar dute, gutxienez.
- Parte hartzaileek prestakuntza jarduerako dinamika, ariketa eta praktika guztiak egin behar dituzte.

BALDINTZAK

Ikastarora matrikulatzen den pertsonak honako irizpideetako bat bete beharko du:

- Lanbide Heziketako irakaslea izatea
- Lanean, ikastaroan aurkezten diren edukien inguruan lan egiten duen persona izatea eta aurrez beharrezkoak diren oinarrizko ezagutzak izatea.

Norii zuzendua: Energia berriztagarrien eta Efizientzia energetikoaren inguruan ezagutza zabaldu nahi duen edozein persona eta Elektrizitate eta Elektronika eta Energia eta Ura familietako irakasleei zuzendua dago ikastaroa.

PARTE HARTZAILEAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

- Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa izen-emate ordena jarraituz egingo da.
- Plaza kopurua honako proportzioak kontutan hartuz banatuko dira:
- Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak: plazen %80.
- EAEko LHko irakaslegoa: plazen %20.

IZEN-EMATE DATAK

Izen-emate datak:

- Plaza kopurua: 15 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 15 pertsona)
 - Izena emateko azken eguna: 2018ko ekainaren 8a
 - Ebazpena: 2018ko ekainaren 11. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
 - Matrikula ordaintzeko azken eguna: 2018ko ekainaren 18a
 - Beste erkidegoetako LH irakasleak eta enpresako langileak matrikularen kostua: 450€
 - EAEko LHko irakaslegoa matrikularen kostua: DOAINIK
-